

BARATZAREN PROIEKTUA

OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOAN

2010/11 Ikasturtean Karrikako haur eskolan zeuden irakasleek bertako lur eremuan baratza bat prestatzera animatu ziren, baratza ttikia, haurren tamainakoa.

Belarra kendu, laiarekin lurrari buelta eman, gorotza bota, ondo nahastu eta barazki batzuk landatu zituzten. Bertako langilea den Trinik ere, bere baratzetik azelga eta lore landareak ekarri zizkieten.

Baratza egitearen helburua hauxe zen: haurrak baratzean ekoizten dena ezagutzea, landareak errespetatzen ikastea, gelan erabiltzeko materiala sortzea... (esate baterako, sehaska geletarako kalabaza ttikiak edo sukalde txokorako barazkiak), eta helduenak, bi urteko haurrak, udaberri aldera hazien lanketan hasten direnean, haziak ereiteko lur eremu bat izatea, sortutako landareak bertan landatzeko, hazten ikusteko, ematen dituzten fruituak ikusteko... eta dastatzeko.

Haurrek ikasturtean zehar, landare gehieneko prozesu osoa ikusteko aukera izan zuten. Zerba hosto ederrak egin ziren, aza eta brokoli buru koxkorak (bertako sukaldean egosi eta dastatu zituztenak), marrubitxo gorri erakargarrien bila ibili ziren...

Xomorroak, xixareak... azaldu ziren, haurren interesa eta jakinmina gehiago pixtuz, eta baratza zaindari bat behar zuenez, txorimalo dotore bat ere bertan jarri zuten.

Baratzaren proiektuaren arrakasta ikusirik, estreinatu berri dugun haur eskolan, kanpoko lur eremu bat baratza egiteko prestatzea erabaki zen.

Berriz ere belarra kendu, lurrari buelta eman... eta irakasle eta haurrek baba haziak ereini eta landare batzuk landatu zituzten: azak, lonbardak, eskarola kizkur eta lisoak... baina oraingo honetan ezustekoa gertatu zen: inguruko untxiak baratza aurkitu eta kizki-kazka gure landaretxo xamurrak jaten zituztela konturatu ginen! Ondorioz, baratza hesitu behar izan zen.

Udaberria iritsi denean patata ereini dute eta ikasturtea bukatu aurretik denen artean patata ateratzeko asmoa dute.

Baratzak garaiko fruituak zeintzuk diren erakutsiko digu, eta Ekolapiko proiektuaren helburua, "garaian garaiko fruitu ekologikoak kontsumitzea", betetzen lagunduko digu. Proiektu honen barruan, aurten ere gurasoei zuzendutako ekintzekin jarraitzen dugu: azaroan, "Elikadura Ekologiko eta Oreatua" hitzaldia izan zen, eta martxoan gurasoentzako sukaldaritza tailer praktikoa: "Haurrentzako plater goxoak prestatzen", haur eskola berriko sukaldean burutu zena, biak Sabrina Pato elikadura hezitzailearen eskutik. Ekaina aldera, ekoizpen ekologikoa duen baserri batera egingo dugu bisita; bertako baratzean gurean baina fruitu gehiago egongo da inolako dudarik gabe, baina esperientzi aldetik badakigu gure baratza oso emankorra izango dela.